

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**497/2024 Foru Agindua, irailaren 20koa. Onartzea bete direla Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren uztailaren 31ko 468/2024 Foru Aginduan ezarritako baldintzak; hain zuzen ere, Salcedon, Lantarongo udalerrian, Ekiola parke fotovoltaikoa ezartzeko lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren espedientea zenbait baldintzarekin behin betiko onetsi zuten 468/2024 Foru Aginduan ezarritakoak**

Uztailaren 31ko 468/2024 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onetsi zen zenbait baldintzarekin Salcedon, Lantarongo udalerrian, Ekiola parke fotovoltaikoa ezartzeko lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren espedientea.

468/2024 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen, haiek zuzendu eta gero, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Espedientearen osagai den testu bategina 2024ko irailaren 6an sartu zen aldundi honen erregistroan.

Aurkeztu den dokumentazioa aztertutik, egiaztatu da zuzenduta daudela aipatutako foru aginduan adierazitako alderdiak.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea uztailaren 31ko 468/2024 Foru Aginduak ezarritako baldintzak, zeinaren bidez behin betiko onetsi baitzen zenbait baldintzarekin Salcedon, Lantarongo udalerrian, Ekiola parke fotovoltaikoa ezartzeko lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren espedientea.

Bigarrena. Plan berezia Arabako hirigintza plangintzako administrazio erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea hirigintzako araudiarekin batera.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 20a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**

Salcedon, Lantarongo udalerrian, Ekiola parke fotovoltaikoa ezartzeko lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren espedientearen behin betiko onespena 2024ko urriaren 2a inskribatu da Arabako hirigintza plangintzaren administrazio erregistroan, 2024/15 erregistro zenbakiarekin.

**B- Garapeneko hirigintza araudia**

Plan berezia Ekiola parke fotovoltaikoa, Lantaronen (Araba)

Plan Berezia

**AURKIBIDEA:****LEHENENGO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua
2. artikulua. Indarrean jartzea eta indarrean irauteko baldintzak
3. artikulua. Plan Berezia eratzen duten dokumentuak eta haien arauzko irismena

**BIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA ARAUBIDEA**

1. kapitulua. Lurzoruaren kalifikazio xehatuaren araubidea
4. artikulua. Kalifikazio araubide aplikagarriaren definizioa
5. artikulua. Zonakatze kodea
6. artikulua. Plaka fotovoltaikoen zona
7. artikulua. Sarrera zona eta TZ
8. artikulua. Plaka fotovoltaikorik gabeko zona
2. kapitulua. Egikaritze araubidea
9. artikulua. Interes publikoaren adierazpena
10. artikulua. Plan Berezia betearazteko araubidea
11. artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak eta instalazioak
12. artikulua. Partzelazioa

**HIRUGARREN TITULUA: INSTALAZIOAREN ETA URBANIZAZIOAREN ARAU PARTIKULARRAK**

1. kapitulua. Eguzki instalazio fotovoltaikoaren baldintzak
13. artikulua. Instalazioen baldintzak
2. kapitulua. Urbanizazio baldintzak eta zerbitzu azpiegiturak
14. artikulua. Lurren mugimendua

15. artikulua. Zerbitzuaz baliatzeko baldintzak

16. artikulua. Lurzatiaren barruko urbanizazioa

17. artikulua. Lurzatiaren itxitura

#### **LAUGARREN TITULUA: HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINERATUTAKO BALDINTZAK**

18. artikulua. Ingurumen baldintzak

19. artikulua. Zortasun aeronautikoak

#### **LEHENENGO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Hirigintza arau hauen xedea da arautzea Lantarongo (Araba) Ekiola Parke Fotovoltaikoa garatzeko mugatutako eremuaren barruan sartzen diren lursail, eraikin eta instalazioen erabilera.

2. artikulua. Indarrean jartzea eta indarrean irauteko baldintzak

1.- Plan Berezia indarrean jarriko da, Plana behin betiko onesteko erabakia eta bere hirigintza arauak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da, harik eta haren zehaztapenak erabat edo zati batean aldatzen diren arte, legez ezarritako betekizunekin, edo erabat indargabetzen diren arte, halaxe ezartzen duen goragoko mailako plangintza tresna bat onetsiz gero.

2.- Plan Berezioko xedapenen bat baliogabetzeak, ezeztatzeak edo aldatzeak ez du gainerakoen baliozkotasunean eraginik izango, lotura edo menpekotasun inguruabarraren ondorioz baten bat aplikatu behar ez den kasuetan izan ezik.

3. artikulua. Plan Berezia eratzen duten dokumentuak eta haien arauzko irismena

1.- Plan Berezia osatzen duten agiriak

Plan Berezi honek agiri hauek biltzen ditu:

A DOKUMENTUA: MEMORIA

B DOKUMENTUA: HIRIGINTZAKO ARAUAK

C DOKUMENTUA: EGIKARITZE LANA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK  
D DOKUMENTUA: EKONOMIA ETA FINANTZA BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA  
E DOKUMENTUA: EGIKARITZE LABURPENA

## F DOKUMENTUA: PLANOAK

## 2.- Dokumentuen izaera arauemailea:

Proiektuaren eduki arauemailea artikuluan honen 1. epigrafean adierazitako agiri guztiek definitzen badute ere, "B" (Hirigintza Arauak) eta "F" (Planoak) agiriak dute berariaz izaera arauemaile eta hirigintzako esku hartzea arautzeko izaera hori, eta, beraz, esku hartzea haien zehaztapenetara egokitu beharko da nahitaez.

Gainerako dokumentuak azalpen, erreferentzia edo justifikazio izaerakoak dira, nagusiki. Beraz, aurretik aipatutakoekin alderatuta kontraesanik egonez gero, aurrekoek izango dute lehentasuna.

Hirigintza arau hauetan jasotzen ez diren izaera orokorreko kasuetan, Lantarongo Arau Subsidiarioen araudi orokorra aplikatuko da.

## 3.- Dokumentuen arteko desadostasunak:

Desadostasunik antzemanaz gero eskala desberdinetan egindako izaera arauemaileko planoetako hirigintza zehaztapenen batean, eskala zehatzago batean idatzitako planoek ezarritakoa nagusituko da, salbu eta bat ez datorren alderdia plano horietako edukiaren akats material nabarmena bada.

Kontraesana badago hirigintza arauetan euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean, gaztelaniaz idatzitako jatorrizkoa gailenduko da euskarara itzulita dagoenaren aldean.

Kontraesana badago araudiaren eta planoen artean, planoetan ezarritakoa gailenduko da, salbu eta bat ez etortzea plano horietako edukiaren akats material nabarmena bada.

**BIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA ARAUBIDEA**1. kapitulu. Lurzoruaren kalifikazio xehatuaren araubidea

## 4. artikulua. Kalifikazio araubide aplikagarriaren definizioa

Plan berezi honen eremua dokumentu honen PO.01 "Zonakatze xehatua" planoan jasotako kalifikazio araubidearen mende dago.

## 5. artikulua. Zonakatze kodea

Plan Bereziaren eremuaren zonakatze xehatua bat dator PO.01 "Zonakatze xehatua" planoan islatutako zona banaketarekin. Han, erabilera xehatuko zona hauek ezartzen dira:

- Plaka fotovoltaikoen zona.
- Sarrera zona eta TZ.
- Plaka fotovoltaikorik gabeko zona.

#### 6. artikulua. Plaka fotovoltaikoen zona

1.- Definizioa: Plaka fotovoltaikoak eta inbertsoreak jar daitezkeen arearekin bat dator.

2.- Jabaria: Pribatua.

3.- Erabilera araubidea:

- Erabilera nagusia: Zerbitzu azpiegiturak, parke fotovoltaikoaren modalitatean.
- Erabilera bateragarriak: Espazio libreak eta berdeguneak. Lurpeko linea elektrikoak.
- Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

4.- Eraikuntza araubidea:

- Oro har, ez da eraikuntza baimentzen.
- Honako hirigintza parametro hauek ezartzen dira plaketarako eta inbertsoretarako:
  - Mugetarako tartea: 8 m

PO.02 "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" planoak instalazioaren gehieneko inguratzailea ezartzen du, eta plaka fotovoltaikoak eta inbertsoreak jar daitezke bertan.

- Plaka fotovoltaikoen gehieneko okupazioa: 31.188 m<sup>2</sup> (bat dator instalazioaren gehieneko inguratzailearen azalerarekin).
- Instalaturako plaken gehieneko garaiera: 3 m

#### 7. artikulua. Sarrera zona eta TZ

1.- Definizioa: Instalazio fotovoltaikora sartzeko area da.

2.- Jabaria: Pribatua.

3.- Erabilera araubidea:

- Erabilera nagusia: Instalazio fotovoltaikorako eta transformazio zentrorako sarrera.
- Erabilera bateragarriak: Berdeguneak, aparkalekua eta lurpeko linea elektrikoak.
- Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

4.- Eraikuntza araubidea:

- Baimena ematen da transformazio zentroetarako eta parke fotovoltaikoari lotutako beste instalazio eta azpiegitura batzuetarako etxolak ezartzea, PO.02. "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" planoan ezarritako lerrokaduren barruan.
- Honako hirigintza parametro hauek ezartzen dira etxoletarako:
  - Gehieneko eraikigarritasuna: 100 m<sup>2</sup>(t)
  - Gehieneko okupazioa: 100 m<sup>2</sup>
  - Gehieneko garaiera: 4 m.
  - Solairu kopurua: 1
  - Mugetarako tartea: 10 m

#### 8. artikulua. Plaka fotovoltaikorik gabeko zona

1.- Definizioa: Eremuaren mugaren eta instalazioaren gehieneko ingurutzailaren artean geratzen den area da.

2.- Jabaria: Pribatua.

3.- Erabilera araubidea:

- Erabilera nagusia: Berdegunea eta pasabidea instalazioa mantentzeko.
- Erabilera bateragarriak: Lurpeko linea elektrikoak.
- Debekatutako erabilerak: gainerakoak.

4.- Eraikuntza araubidea:

- Zona honetan ezin da plaka fotovoltaikorik eraiki edo jarri.
- Hesia jarri ahal izango da, PO.02 "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" planoan ezarritako itxitura perimetralaren gehieneko muga errespetatuz.

#### 2. kapitulua. Egikaritze araubidea

#### 9. artikulua. Interes publikoaren adierazpena

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen den bezala, Ekiola instalazio fotovoltaikoaren interes publikoko adierazpena egin beharko da Arabako Foru Aldundiaren ebazpen baten bidez. Kasu honetan, Arabako Foru Aldundiari dagokio Plan Berezia behin betiko onestea; hortaz, inplizituztat joko da interes publikoaren adierazpen zehatza.

#### 10. artikulua. Plan Berezia betearazteko araubidea

Plan bereziak mugatzen duen eremuan proiektatutako antolamendua zuzenean betearaziko da, dagokion obra lizentzia lortu ondoren.

#### 11. artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak eta instalazioak

Antolamenduz kanpokotzat jotzen da Plan Berezi honetako zehaztapenekin bat ez datorren edozein eraikuntza, instalazio edo erabilera.

#### 12. artikulua. Partzelazioa

1.- Hirigintza partzelazioak edo beste edozein motatakoak debekatuta daude, eta aplikagarri den legeria orokorrean ezarritako irizpideen arabera egiten diren lurzati nagusien banaketak eta zatiketak baino ez dira onartuko.

2.- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren (177/2014 Dekretua) 11. artikulua arabera, ez da baimenduko eragindako finkak banantzea, baldin banantze horretatik ateratzen badira gutxieneko laborantza unitatea baino azalera txikiagoa duten lurzati edo finkak, salbu eta bermatzen bada lehendik dauden beste nekazaritza ustiategi batzuei atxikiko zaizkiela.

## **HIRUGARREN TITULUA: INSTALAZIOAREN ETA URBANIZAZIOAREN ARAU PARTIKULARRAK**

### 1. kapitulua. Eguzki instalazio fotovoltaikoaren baldintzak

#### 13. artikulua. Instalazioen baldintzak

PO.02 "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" planoan, instalazioaren (plakak eta inbertsoreak) gehieneko lerrokadurak ezartzen dira, bai eta transformazio zentroa instalatzeko inguratzaile espezifiko eta bereizi bat ere. Perimetro itxitura (hesia) jar daitekeen gehieneko muga ere zehazten da.

- Instalazioaren gehieneko inguratzailea: zona honetan plaka fotovoltaikoak eta inbertsoreak jar daitezke.
- Eraikinaren gehieneko inguratzailea: inguratzaile horren barruan transformazio zentroak jarri ahal izango dira.
- Perimetro itxituraren muga: hesia jar daitekeen gehieneko muga da. Ez du zehazten hesiaren azken posizioa; perimetro itxitura atzeraeman daiteke marraztutako gehieneko mugatik.

### 2. kapitulua. Urbanizazio baldintzak eta zerbitzu azpiegiturak

#### 14. artikulua. Lurren mugimendua

Parke fotovoltaikoaren eraikuntza proiektuan zehaztuko dira lursailaren behin betiko sestrak, lur mugimendu handirik ez egiteko eta oraingo topografiaren ezaugarriei eusteko irizpide orokorraren barruan beti.

#### 15. artikulua. Zerbitzuaz baliatzeko baldintzak

Ahal dela, instalazioak sarbide bakarra izango du bidetik, landa lurzatiarako sarbidea asfaltatu gabe.

#### 16. artikulua. Lurzatiaren barruko urbanizazioa

Parke fotovoltaikoaren eraikuntza proiektuak lurzatiaren barne urbanizazioaren ezaugarriak zehaztuko ditu, zeinak koherenteak izango baitira jasotako erabilerarekin, eta lur mugimendurik ez egiteko eta iragazgaitutako azalerarik ez sortzeko irizpide orokorra errespetatuko dute.

#### 17. artikulua. Lurzatiaren itxitura

Perimetroko itxitura, segurtasun kontuak tarteko, funtsezko betekizuna da eguzki energia sortzeko instalazio mota hauetan. Instalazio fotovoltaikoa eraikitzeko proiektuak xehetasunez zehaztuko du basa faunaren gaineko inpaktuak minimizatzeko eta haren zirkulazio askea bermatzeko diseinatuko den perimetro hesia, EAeko lurralde antolamenduaren gidalerroek ezartzen duten bezala.

Hesiak honako ezaugarri hauek bete beharko ditu, fauna aske ibil dadin bermatzeko:

- Ehiza edo abeltzaintza hesiak, ahal dela 2 m baino baxuagoak.
- Tamaina txiki eta ertaineko faunarekiko iragazkorra den diseinua, hesi efektua saihestu eta ingurunean integratzen dena.
- Gehienez ere 20 cm-ko diametroa duten eta aitzurrarekin lur berean induskatuta dauden «katzulo» motako pasabideak gaitzea..
- Hesia hegaztien talken aurkako gailuarekin seinaleztatzea.

PO.02 "Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak" planoan lurzatiaren itxituraren gehieneko lerrokadura islatu da.

### **LAUGARREN TITULUA: HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINERATUTAKO BALDINTZAK**

#### 18. artikulua. Ingurumen baldintzak

Memoriaren 10. puntuan (Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena) ezarritako prebentzio eta zuzenketa neurriak bete beharko dira.

#### 19. artikulua. Zortasun aeronautikoak

Plan Bereziaren eremu osoa Gasteizko aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoen zonen barruan dago.

Eremu horri eragiten dioten Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen azalera mugatzaileen maila lerroek, zeinak PO.05 "Zortasun aeronautikoak" planoan grafiatuta baitaude, proposatutako eraikuntza, instalazio edo landaketa batek edo objektu finko edo mugikorrek (zutoinak, antenak, aerosorgailuak palak barne, kartelak, etab.) gainditu behar ez dituzten garaierak zehazten dituzte, baita bide azpiegituren galiboa ere.



Edozein eraikuntza, instalazio edo landaketa zortasun aeronautikoen eraginpeko zona batean egiten bada, edo inguruko lursailaren edo uraren mailatik 100 metro edo gehiagoko garaiera badu, Aire Segurtasunaren Estatu Agentziaren (AESA) edo Defentsa Ministerioko organo eskudunaren aldez aurreko aldeko erabakia beharko da, kasuan kasuko eskumenen esparruan, Zortasun Aeronautikoei buruzko 369/2023 Errege Dekretuaren oraingo idazketan 31. eta 33. artikuluetan eta 15. artikuluan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.